Muntaren betekizuna kentzea eta, kasazio-interesik badute, kasazio-errekursoak aurkeztu ahal izatea onartzea, baldin eta kasazio-interesa badute. Horrenbestez, betekizun horrek ez du eragotziko kasaziora iristea euskal zuzenbide zibilaren interpretazioari begira duten garrantzia edo kasazio-interesa gorabehera, kuantifikazio ekonomiko eskasekoak edo ezinezkoak izan daitezkeen gaiak, askotan familia-zuzenbidearen arloan gertatzen den bezala, eta kasazio-interesa simplifikatza, hura konfiguratzeko balio duten elementuak zabalduz. Hartara, Justizia Auzitegi Nagusira jo ahal izango da, betiere gaiari buruzko jurisprudentziarik ez badago, edo probintzia-auzitegiek ebazpen kontrajarriak eman baditzute.

c.- Beste xede batzuk:

- Herritarren eskubideak babesteko bermeak areagotzea, kasazio-errekursoa indartzeko, zuzenbidearen aplikazio judizialean uniformetasuna bermatzeko tresna nagusia den aldetik.
- Euskal Zuzenbide Zibilaren jurisprudentzia-corpusa osatzen duten epaien maila zabaltzea. Kontzeptu horretan sartuko litzateke, oraindik indarrean egon daitekeen neurrian, bere garaian Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia -Erkidegoaren lurralte-eremuan antolamendu judiziala burutzeaz arduratzen den organo gisa- sortu eta abian jarri aurretik, auzitegi guztien ebazpen irmoek behin eta berriz ezarritako doktrina historikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako epaile eta auzitegien epaien aurka aurkeztutako errekursoak ebazteko eta epai horietatik zuzenbide zibilaren arloan sortzen den doktrina bateratzeko jurisdikzioa bazegokion.

d.- Implikatutako sektore sozialak:

- Eragile eta operadore juridikoak, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordean ordezkatuak.
- Zuzenbide zibileko figuretan oinarritutako familiak eta bizikidetza-unitateak (izatezko bikoteak, bizikidetza hautsi duten gurasoak, oinordetza-izapideetan dauden familiak...).
- HERRITARRAK ORO HAR.

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data:

- 2021eko lehen seihibilekoa

#### **4. EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMEN SAILA**

##### **11.- EAEko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko Legea**

a.- Izena: EAEKO NATURA ONDAREA KONTSERBATZEARI BURUZKO LEGEA

b.- Arauaren xede nagusia:

EAEko natura-ondarea babestu, kontserbatu, kudeatu, era jasangarrian erabili, lehengoratu eta hobetzeko esparru juridikoa ezartzea.

c.- Beste xede batzuk:

- Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarrizko bizi-sistemen jarraitutasuna bermatzea, ekosistemen zerbitzuak babestuz
- Natura-ondarearen dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratzea, bai eta haren ahalmen produktiboa ere
- Ekosistema naturalak eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietate, berezitasun eta edertasuna kontserbazio-egoera onean gordetzea
- Dibertsitate genetikoaren kontserbazio-egoera ona bermatzea, bai eta basafauna eta basafloraren populazioen babesera eta bere habitatak
- Natura-ondareko ondasunak, baliabideak eta zerbitzuak era jasangarrian erabiltzen direla ziurtatzea, bereziki basa espezieak eta ekosistemak, biodibertsitate galera garbia saihestuz
- Natura-ondarea kontserbatzera zuzendutako ezagutza, prestakuntza eta ikerkuntza sustatzea
- Natura-ondareari buruzko datuen eta informazioaren antolaketa, trukea eta ezagutarazpena erraztea
- Kontserbatu behar diren naturaguneen kudeaketa bizkortu eta erraztea

d.- Implikatutako sektore sozialak:

- Jarduera ekonomiko publikoak eta pribatuak.
- Administrazio publikoak (Jaurlaritza, aldundiak eta toki-administrazioak).
- Herritarra.
- Unibertsitateak, ikastetxeak, ikerketa-zentroak.
- Sindikatuak eta alderdi politikoak.

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data:

- 2020ko bigarren seihiilekoa



## 12.- EAEko Ingurumen-administrazioari buruzko Legea.

a.- Izena: EAEKO INGURUMEN-ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGEA.

b.- Arauaren xede nagusia:

Ingurumen-babes handia bermatuko duen esparru juridikoa ezartzea, egungo errealitate ekonomiko eta sozialera egokituta.

c.- Beste xede batzuk:

- Pertsona fisikoen eta juridikoen, publikoen eta pribatuen eskubideak eta betebeharrok ezartzearingurumen-babesaren arloan
- EAEko ingurumen-politika koordinatzeko tresnak eratzea
- Ingurumen-gaiei buruzko informazioa, herritarren parte-hartzea eta justiziarako sarbidea sustatzea.
- Ingurumen-administrazioaren funtzionamendua arindu eta erraztea, era berean, administrazioaren esku-hartzea murriztu eta errazteko
- Ingurumen-hobekuntza eta erantzukidetasun publiko-pribatua sustatzeko tresnak diseinatzea, ingurumen-babeseko arauak errazago bete ahal izateko
- Ingurumenean eragina duten jardueren ingurumen-ikuskapena eta -kontrola agintzea
- Ingurumeneko diziplina-arauak eta zehapen-araubidea, ingurumen-legeen berrezarprena eta ingurumen-kalteen gainekeo erantzukizuna arautzea

d.- Implikatutako sektore sozialak:

- Ingurumenean eragina izan dezaketen jarduera ekonomiko publiko eta pribatuak.
- Administrazio publikoak (Jaurlaritza, aldundiak eta toki-administrazioak).
- Herritarra.
- Unibertsitateak, ikastetxeak.
- Sindikatuak eta alderdi politikoak.- Fecha estimada de remisión a Consejo de Gobierno para aprobación del Proyecto de ley:

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data:

- 2020ko bigarren seihiilekoa



### 13.- Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Legea

a.- Izena: TRANTSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO LEGEA

b.- Arauaren xede nagusia:

Berotegi-efektuko gasen emisioetan neutroak izateko esparru juridikoa ezartzea 2050eko horizontarekin, eta lurraldea klimarekiko erresilienteagoa egiteko aurrerapenak egitea, erakundearteko koordinaziorako mekanismoak eta organismoak sortuz klima-aldaketako gaietan.

Klima-aldaketaren eraginetara egokitza, euskal industria sustatzeko garapen teknologikoaz baliatuta, klima-helburuak energia-estrategiarekin eta industria-politikarekin lotuta egon daitezen.

c.- Beste xede batzuk:

- Garapen ekonomiko soziala, jasangarria eta karbonoan neutroa bultzatzea, eta lurraldea eta pertsonak klima-aldaketaren ondorioen aurrean babestea.
- Klima-gobernantzako esparru bat zehaztea, legea betetzen dela bermatzeko.
- Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta CO<sub>2</sub> hustuleku ahalduna handitzea.
- Energiaren aurrezkiak eta eraginkortasuna sustatzea, bai eta energia berriztagarrien ezarpena ere, eredu energetiko jasangarriago batera igarotzea sustatzeko, nagusiki autoaskitasunean, hurbiltasunean eta desentralizazioan oinarrituta.
- Euskadin klima-aldaketara egokitzeko eginkizunean arradera egitea, arriskua kudeatuta eta erresilientzia hobetuta, bai eta egokitzapena sektore- eta lurralde-plangintzan txertatuta.
- Klima-aldaeta txertatzea ukitutako politika publiko nagusietan eta gizarte osoaren jardunean.
- Teknologiaren berrikuntza eta garapena bultzatzea, sektore guztiaren berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, baita CO<sub>2</sub> gehiago xurgatzeko eta lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia hobetzeko.
- Klima-aldaketari, bere egoerei eta inpaktuei buruz kalitatezko informazioa emango duten mekanismoak eta tresnak ezartzea eta herriarren portaera-aldaaketa sustatzea.
- Alianza publiko-pribatuak bultzatzea, klima-ekintzako politika aldatzeko.
- Pertsonak klima-politikaren erdigunean kokatzea, trantsizio justu baten aldeko apustua egin, inolako kolektiborik atzean utzi gabe.

d.- Inplikatutako sektore sozialak:

- Administrazio publikoak (Jaurlaritza, aldundiak eta toki-administrazioak).
- Ingurumenean eragina izan dezaketen jarduera ekonomiko publiko eta pribatuak.
- Herriarrak.
- Unibertsitateak, ikastetxeak, ikerketa-zentroak.
- Sindikatuak eta alderdi politikoak.

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data::

- 2021eko bigarren seihiilekoa

#### 14.- Landa garapenaren legea

a.- Izena: LANDA GARAPENAREN LEGEA

b.- Arauaren xede nagusia:

Euskal landa ingurunearen garapen iraunkorrerako jarduketak gidatuko duen arau esparria erregulatzea eta ezartzea, lurraldearen gainerakoaren maila berean posizionatu dadin, herrialdearen garapenean eta kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoan funtsezko faktore gisa. EAEko landaguneetan politika sektorialak aplikatzeko gobernantza eta erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak ere ezarri nahi ditu, lurraldearen garapenaren eremuan ekintza publiko koordinatua eta osagarria lortzeko.

c.- Beste xede batzuk:

- Euskal landa eremuaren babes, bereziki nekazaritzak hartutakoarena eta mendialdeena, EAEko lurraldea egituratzen duen eta bere paisajerik adierazgarriena eratzen duen funtsezko elementua den heinean.

-EAEko landaguneetako jarduera ekonomikoaren sustapena eta dibertsifikazioa, herrialdearen garapen ekonomikoan laguntzeko eta populazioa eta zerbitzuak finkatzen laguntzeko.

-Euskal baserriguneetako biztanleen ongizate maila hobetzea eta baserriguneen despopulazio geldiaraztea, Euskadiren kohesio sozialerako eta lurraldekorako funtsezko faktore gisa.

d.- Implikatutako sektore sozialak:

Toki erakundeak: Udalak, Foru Aldundiak.

Agentes sektorialak.

Euskadiko landaguneko biztanleak.

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data::

- 2021eko bigarren seihiilekoa



## 15.- Abereen babeserako legea.

a.- Izena: ABEREEN BABESERAKO LEGEA

b.- Arauaren xede nagusia:

Lege honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko abere, hiriko basa abere edo itxian daudenek babeserako eta ongizaterako eta abereak edukiteko eta salerosko arauak ezartzera, berdin dela Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta edo erregistratuta egon zein ez eta berdin dela, halaber, abereen titularrak edo arduradunak non bizi diren.

Lege honen azken helburua izan behar da abereek izaki bizidunak diren heinean dagokien babes eta ongizate mailak edukitzea, sentsibilitate fisikoa eta psikikoa eta premia etologikoak baititzte.

c.- Beste xede batzuk::

Helburu hori lortzeko, hau bultzatuko da:

a) Administrazio publikoek abereak babestea, kontserbatzea, errespetatzea eta ondo tratatzea, beren eskumenen barruan.

b) Abereak abandonatzearen eta abereak fisikoki edo psikologikoki gaizki tratatzearen aurka egitea, eta konpainiako abereak adoptatza sustatzea.

c) Abereak era arduratsuan edukitzea, eta abereak dagokien errespetuarekin eta begirunearekin tratatza sustatzea.

d) Konpainiako abereen esterilizazioa eta era arduratsuan haztea, abereen gainpopulazioa eta abandonua ekiditeko funsezko zutabe diren heinean.

e) Ikuskapenak eta lege hau betezeko protokolo eraginko bat ezartzea.

d.- Implikatutako sektore sozialak:

Abereen jabeak (etxeko aberea, konpainiakoak, basa abereak, exotikoak)

Udalak

Abereen babeserako eta defentsarako elkartea

Albaitariak

Gizarte oroen har

e.- Lege projektua onartzeko Gobernu Kontseilura bidaltzeko aurreikusitako data::

- 2021eko bigarren seihiilekoa

**5. EKONOMIA ETA OGASUNA SAILA.**

**16.- Baliabideen banaketarako eta euskal autonomia erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren legea..**

a.- Lege proiektuaren izena: BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIAREN LEGEA.

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko finantza-harremanen erreferentzia-esparrua egunearatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 41.2 artikuluko e) idatz-zatiko baldintzak betez.

c.- Beste helburu batzuk:

Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren ondorio diren baliabideak EAEko erakunde publikoen artean banatzeko metodologia zehaztea. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakita, 27/1983 Lege, azaroaren 25eko, autonomia-elkarreko osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzkoan, 22. artikuluan, xedatutakoaren arabera.

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

Foru-aldundiak.

Udalak.

Herritarra, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2021eko bigarren seihibekoan.

**17.- Euskal autonomia erkidegoko 2005-2018 ekitaldiei dagozkieneen aurrekontu orokoren likidazioak onartzeko legea**

a.- Lege proiektuaren izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2005-2018 EKITALDIEI DAGOZKIEN AURREKONTU OROKORREN LIKIDAZIOAK ONARTZEKO LEGEA.

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 126. artikuluan aurreikusitakoa betetzea. Artikulu horren arabera, Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidaliko du aurrekontu orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa, Autonomia Erkidegoaren finantza- eta ondare-egoeraren beste alderdi batzuei buruz eskatzen den informazioarekin batera, eztabaidatu eta onar dezan, dagokion lege-proiektuaren bidez.

c.- Beste helburu batzuk:

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

- Herri-administrazioak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2021eko lehen seihiilekoan

**18.- Euskal autonomia erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautzen duen legea.**

a.- Lege proiektuaren izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN LEGEA.

b.- Araudiaren helburu nagusia:

- Laguntzen eta diru-laguntzen araubide orokorra Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gai moduan berariaz erregulatzea.
- Administrazioaren diru-laguntza jarduera berrantolatzea, kontuan hartuta indarreko araudiaren aplikazioan orain arte pilatutako esperientzia.

c.- Beste helburu batzuk: ...

- Diru-laguntza jardueraren erregulazioa oinarrizko araudira (38/2003 Lege, azaroaren 17ko, Diru-laguntzei buruzko Orokorra) egokitzea.
- Gardentasuna ziurtatzea diru-laguntzak eta laguntza publikoak emateko prozeduran.
- Eraginkortasun- eta efikazia-mailak handitzea diru-laguntzen arloko gastu publikoaren kudeaketan.

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

Herri-administrazioak.

Herritarra, oro har.

e.- Lege-proiektua gobernu kontseilura bidaltzeko gutxi gorabeherako data, hark onar dezan:

2021ko bigarren seihilekoan.

**19.- 2023-2026 aldirako euskal autonomia erkidegoko estatistika planaren legea..**

a.- Lege proiektuaren izena: 2023-2026 ALDIRAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATISTIKA PLANAREN LEGEA.

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzea 2023-2026 laurtekoan.

Plana legez onartzen da, eta Euskal Estatistika Erakundea/EUSTATek, Jaurlaritzako sailek eta ekintza-mailako estatistika-organoek (foru aldundiek nahiz udalek) indarraldian egin beharko dituzten estatistika-eragiketak eta estatistika-jarduerak hartzen ditu barruan.

c.- Beste helburu batzuk:

- Kalitateko informazio estatistikoa emateko sistema bideratzea, arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen politika publikoen plangintzan, eta haien ebaluatu ahal izateko.

d.- Zein gizarte sektoretan duen ERAGINA (garrantziaren arabera zerrendatu):

Herri-administrazioak.

Gizarte-eragileak.

Informazio estatistikoa eskatzen duten politika publikoak ematean tartean diren kolektibo sozialak.

Herritarrak, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2022eko lehen seihibekoan

**20.- Finantzen euskal institutuaren legea.**

a.- Lege proiektuaren izena: FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUAREN LEGEA.

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Finantzen Euskal Institutuaren jarduera-eremuari, funtziei, antolaketari eta araubide juridikoari egiturazko erregulazioa ematea, finantzaketa publikoko tresnen kudeatzaile gisa duen eginkizuna sendotzeko.

c.- Beste helburu batzuk:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren finantza-ekintzako tresnak indartzea.

Ekonomia produktiboaren aldeko finantza-neurriak garatzea, finantza-erakundeekin lankidetzan, euskal enpresen finantza-gaitasuna areagotzeko.

d.- Zein gizarte sektoretan duen ERAGINA (garrantziaren arabera zerrendatu):

Finantza-erakundeak.

ETEak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak.

Herritarrok, oro har.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2022eko lehen seihibekoan

## **6. HEZKUNTZA SAILA**

### **21. Euskal Hezkuntza Legea.**

a.- Lege proiektuaren izena: EUSKAL HEZKUNTZA LEGEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Hezkuntzari buruzko euskal lege batek euskal hezkuntza-sistema erregulatzea du helburu eta, horretarako, gure hezkuntza-sistemaren erronkei eta etorkizuneko eraldatzeei erantzuna emateko lagunduko duen markoa ezarriko du, euskal hezkuntzaren egonkortasuna eta kalitatea indartuko ditu eta hurrengo hamarkadetan bikaintasunerantz emango ditu urratsak.

c.- Beste helburu osagarri batzuk:

Gaitasunetan eta pertsonengan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegia izango duen lege bat. Hezkuntzaren ikuspegi horri esker, pertsona bezalako garatzeko eta ikasteko prozesuez kontzientzia handiagoa izango du ikasleak.

Kalitatearen, zuzentasunaren eta eraginkortasunaren printzipioetan oinarrituta egongo den lege bat. Lege horrek kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatuko ditu eta ikastetxe publikoen eta itunpekoen identitatea eta berezko izaera errespetatuko ditu.

Gainera, euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrerapausoak ematen eta sakontzen jarraitzeko izango da lagungarri, gizartearen eta gaurko eta etorkizunari begirako testuinguruaren premia pertsonalen, sozialen, akademikoen eta lanari lotutakoenen arabera. Halaber, hezkuntza-espazio europarrean txertatuko da.

Lege horri esker, Gernikako estatutuan aitortutako hezkuntza-eskuduntzek garapen-maila handiena lortuko dute eta euskal hezkuntza-sistema indartu eta egonkortu ahal izango da.

Halaber, gure hezkuntza-sistemaren ezaugarri bereziei kasu egingo dien lege bat ezartzea da helburu. Lege horrek behar diren tresnak izango ditu, hezkuntza-sistemaren premiei era egonkor eta iraunkorrean erantzuna emateko; sistema hobetzea ekarriko duten elementu berritzaleak izango ditu: autonomia, eleanitzasuna, prestakuntza, teknologia berriak, sareak, materialak, hezkuntza-antolaketa ... eta bizitzan zehar etengabe egin beharreko ikaskuntzarako eta ezagutzaren gizartea garatzeko era aktiboan laguntzeko oinariak jarriko ditu.

d.- Implikatutako sektore sozialak (proposatutako erregulazioan lehentasun-ordenaren arabera):

Hezkuntza-erkidegoa (irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritzak, familiak GE).

Ikasleak.

Hezkuntzako sindikatu eta patronalak.

Eragile sozial eta politikoak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2023ko bigarren seihibekoan.

## **7. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA**

### **22. · Mugikortasun Jasangarriaren Legea.**

a.- Lege-proiektuaren izena: MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Mugikortasunari buruzko egungo esparru juridiko integratua definitzeak garraio-eredu eraginkorra, behar bezala planifikatua eta integrala sustatuko du, premia sozioekonomikoetara egokitua, eta ingurumen-inpaktuak eta inpaktu sozialak nabarmen murriztuko ditu egungo sistemarekiko

c.- Beste helburu osagarri batzuk:

Lurralde-antolamendu egokia sustatzea, administrazio publiko eskudunen plangintzan mugikortasun jasangarriaren aldagai sartuz, hau da, zerbitzuak eta garraibideak, beharrezko azpiegiturak eta lotutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-kostuak.

Garraio-sare integratua, eraginkorra eta jasangarria eratzea, garraibideen arabera esku hartzeko gaitasuna duten administrazioekin lankidetzen.

Lehentasuna ematea garraio publikoari eta ingurumen-inpaktuak murrizteari eta energia berriztaezinaren kontsumoari.

d.-Inplikatutako gizarte-sektoreak (proposatutako erregulazioaren garrantziaren araberako hurrenkeran):

EAeko Administrazio Publikoa, foru- eta toki-administrazioak.

Garraio publikoko zerbitzuen titularrak eta/edo ustiatzaileak.

Bidaиien eta salgaien garraioko jarduerekin zerikusia duten erakunde publiko edo pribatuak.

Herritarrak, oro har.

e.- Lege-proiektua gobernu kontseilura bidaltzeko gutxi gorabeherako data, hark onar dezan:

2022ko bigarren hiruhilekoan



## 8. OSASUN SAILA

### 23.- Euskadiko osasun publikoaren legea

a.- Lege proiektuaren izena: EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOAREN LEGEA

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Lege-aurreproiektu honen bidez, Osasun publikoaren Sistema konfiguratu eta ordenatu nahi da, osasun publikoaren arloan egun dauden erronkei erantzun integrala, egokia eta eraginkorra emateko, eta, horrela, Euskadiko pertsonen osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean ezarritakoaren arabera, herritarren eskubideak xehatzen ditu osasun publikoaren arloan, baita Osasun publikoaren Sistema osatzen dituzten administrazioei dagozkien laguntzak, jarduketak eta esku-hartzeak ere (Eusko Jaurlaritza, udalak eta foru-aldundiak). Jarduketa horietan, ardatz iradokitzaitzat hartuko da OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN printzipioa; eta, horren arabera, sektore publiko osoaren ekintzaren zatia izan behar dute pertsonen osasunaren aldeko politikek, ez soilik osasun sektorekoa.

c.- Beste helburu batzuk:

- Osasuna politika guztietan estrategia eta osasunaren gizarte-baldintzatzaileen ikuspegia hartzea, osasun arloko munduko eta Europako lehentasunak jarraituz.
- Pertsonen osasuna eta ongizatea sustatzea, jarduketen orientazio komunitarioa eta sektoreen arteko lehenetsiz.
- Herritarren osasun eta ongizatearen arloan, administrazio publikoen arteko lankidetza indartzea, tokiko esku-hartzeetan areagotuz.
- Erkidegoak, gizarte-mugimenduak eta gizarte-zibila sartzea esku-hartzeen plangintzan, garapenean eta ebaluazioan.
- Pertsonen osasunean duen inpakta eta politika sektorialen ingurune fisikoaren gaineko afekzioak aztertzea.
- Eta, lankidetzako ikuspegi batetik, administrazio publiko guztien koordinazioan lan egitea, baita tarteko bestelako eragileekin batera, osasunaren eta bizimodu eta inguru osasuntsuen sustapena bultzatzeko, eta eragin positiboa edukitzea osasunaren gizarte faktore erabakigarriean.

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

- Gizartea, orokorrean.
- Herria-administrazioak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

2021eko bigarren seihilekoan.



## 9. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 24. · Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea

a.-Lege prioektuaren izena: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEA

b.- Helburu nagusia:

Berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren biktimentzako laguntzak indartzea

c.- Beste helburu batzuk:

Indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema handitzen da. Hala, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren edo familia barruko indarkeriaren biktimez eta sexu-indarkeriaren biktimez gain, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima ere artatuko dira.

Babes handiagoa ematen zaie indarkeria matxistako ingurunea batean bizi diren adingabeei eta mendeko beste pertsona batzuei. Legeak indarkeria matxistaren biktimatza eta indarkeria matxistatik bizirik atera diren biktimatza jotzen ditu. Gainera, indarkeria matxistaren ondorioz, seme-alaba umezurtzearako laguntzak sortzen dira.

Biktimen erreparazio-eskubidea aitortzen da. Era berean, biktimentzat laguntza ekonomiko berri bat aurreikusten du, lehendik daudenekin bateragarria, ebaZen judzial bidez ezarritako kalte-ordinak ordaintzen ez diren kasuetarako.

Legeak, halaber, salaketaren zentraltasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi polizial-judiziala gainditzena jotzen du. Hala, neurrien erdigunean kokatzen dira biktimen eta bizirik atera direnen eskubideak eta ahalduntzea, prozedura judizialean duten inplikazio- edo lankidetza-maila edozein dela ere.

Legeak berdintasunaren alorreko derrigorrezko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra aurreikusten du administrazio publikoetako langile guzientzat. Bereziki, emakumeen aurkako indarkeria matxistari erantzuteko lanetan ibiltzen diren langileentzat, hasierako eta etengabeko prestakuntza nahitaezkoa.

Euskal administrazioek laguntzak bermatu beharko dizkiete baliabide nahikorik ez dutela eta enplegu lortzeko zailtasun bereziak dituztela egiaztatzen duten biktimei. Era berean, gizarte- eta lan-arloko orientaziorako eta prestakuntza-ikastaroetara sartzeko baliabide publikoetan lehentasunezko tratua bermatu beharko dute, eta administrazioek biktima horiek lanetan kontratatuak izan daitezela sustatu beharko dute.

Indarkeriaren detekzio goiziarreko sistemak hobetzen dira, hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-arloetako profesionalentzako protokolo eguneratuen bidez.

Ikerketa areagotuko da eta indarkeriari buruzko datuen erregistroa eta hedapena hobetuko dira. Berdintasunerako Behatokia sortzea ere planteatu da, ikuspegi globala eta iraunkorra izateko.

Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako erabilitako modua.

d.- Inplikatutako gizarte-sektoreak:

Erakunde publikoak

Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak

Biztanleria, oro har



e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2020eko bigarren seihilekoan.

## 25. · Gazteriaren Euskal Legea

a.- Izena: GAZTERIAREN EUSKAL LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-politika garatzeko arau- eta eskumen-esparrua ezartzea.

Helburua da gazteek beren eskubideak erabil ditzaten babestea eta erraztea, eskubide horien izaera edozein dela ere; gazteek gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, iraunkor eta kulturalean aktiboki parte har dezaten sustatzea; eta gazteen autonomia eta emantzipazioa ahalbidetuko duten baldintzak sortzea, haurtzaroan hasitako etengabeko prozesu baten amaiera gisa.

c.- Beste helburu batzuk:

Euskal administrazio publikoen eskumenak eta eginkizunak definitzea.

Gazteriaren arloko politika garatzeko tresnak eta neurriak, bai eta gazteentzako zerbitzu, ekipamendu eta jarduera espezifikoen bidez gazteriaren sustapenerako tresnak eta neurriak ere.

Gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeko tresnak eta neurriak, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren arloko plan orokorrak, erakunde bakoitzeko gazteriaren arloko politikaren plangintzaren eta ebaluazioaren bidez zehaztuko direnak.

Gazteen parte-hartzea sustatzeko neurriak, eta, aldi berean, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko baliozko solaskide gisa aitortzen jarraitzen da, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko maiatzaren 27ko 6/1986 Legeak ezartzen duen bezala. Gizarte-ekimena, gazteen boluntariotza eta nazioarteko lankidetza arautzea, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearekin bat etorriz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Gazteriaren Sail arteko Batzordea eta Euskadiko Gazteriaren Arloko Erakunde arteko Koordinazio Organoa sortzea, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen ordez.

Ikuskapena eta zehapen-araubidea.

d. Implikatutako gizarte-sektoreak:

Erakunde publikoak

Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data  
2020eko bigarren seihileko..

**26.- Garapenerako Lankidetzari buruzko Legea**

a.- Izena: GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO LEGEA

b.- Helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek egiten eta bultzatzen duten garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren politika arautzea.

c.- Beste helburu batzuk:

Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana, Afrika indartuz, besteak beste.

Garapenerako politiken benetako koherentziaranzko bultzada irmoa.

Eusko Jaurlaritzako sailak beren jardun-eremuekin lotutako lankidetza-ekimenetan sartzeko ekintza zehatzak sustatzea.

Erakunde barruko eta erakunde arteko koordinazioa, Euskal Fondoarekiko aliantza bereziki sakonduz.

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak:

Erakunde publikoak

Garapenerako lankidetzako eragileak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

2021eko bigarren seihilekoa.

**27.- Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea**

a.- Izena: EUSKADIKO MEMORIA HISTORIKO ETA DEMOKRATIKOAREN LEGEA.

b.- Helburu nagusia:

Euskadiko Memoria Historikorako eta Demokratikorako politika publikoak arautzea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.19 artikuluetan xedatutakoaren babesean, gerra zibilean eta diktaduran arrazoi politiko, ideologiko edo erlijio-sinesmenekoengatik jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen erreparazio morala eta memoria pertsonalaren eta familiarraren berreskurapena sustatzeko; eta balio eta printzio demokratikoak sustatzeko; gerra zibila, diktadura frankista eta demokraziarako trantsizioa barne hartzen dituen aldian, Euskadiko Autonomia Estatutua onartu arte, gertatutakoak eta horren ingurukoak ezagutaraziz.

c.- Beste helburu batzuk:

- Egia jakiteko eskubidea
- Justiziarako eskubidea
- Errekonozimendu- eta erreparazio-eskubidea
- Zabalkundea eta Hezkuntza
- Desagertuak bilatzea eta identifikatzea
- Memoriaren tokiak eta ibilbideak
- Memoria Historikoaren aurkako elementuak
- Memoria Historikoaren dokumentuak
- Memoria-erakundeen aitorpena, sustapena eta parte-hartzea
- Administrazioaren jarduna eta antolaketa
- Zehapen-araubidea

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak:

- Erakunde publikoak
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak
- Biztanleria, oro har

e.- Lege-projektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2021eko lehen seihibekoan.

**28.- Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Legea**

a.- Izena: HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEI BURUZKO LEGEA

b.- Helburu nagusia:

Haurrak eta nerabeak babesteko eremua arautza, arreta berezia jarri prebentzioan eta babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoeretan.

c.- Beste helburu batzuk:

Haur eta nerabeen eskubideei buruzko arau-edukiak arautza, bai haien oinarrizko eskubideei buruzkoak, bai administrazio publikoen jarduera-esparruen barruan dauden eskubide eta betebeharrei buruzkoak: osasuna, hezkuntza, kultura, aislaldia, ingurumena, gizarteratzea.

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak.

- Erakunde publikoak
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak
- Biztanleria, oro har

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2021eko bigarren seihiilekoa



## 29.- Anitzasunaren ildotik Berdintasunaren eta Sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurkako borrokaren Lege Integrala

a.- Izena: ANIZTASUNAREN ILDOTIK BERDINTASUNAREN ETA SEXU-ORIENTAZIOAGATIKO DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKAREN LEGE INTEGRALA

b.- Helburu nagusia:

Gay, lesbiana, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen berdintasun erreala eta eraginkorrerako eskubidea erabat bermatzeko printzipio, neurri eta bitartekoak arautzea, sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpen eta -identitateagatiko eta sexu-ezaugarriengatiko diskriminazio oro prebenituz, zuzenduz eta ezabatuz, sektore publiko eta pribatuetan, bizitzako edozein etapatan eta edozein eremutan, bereziki, arlo zibilean, lan-arloan, sozialean, hezkuntza-arloan, eta osasun-arloan.

c.- Beste helburu batzuk:

Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualen (LGTBI) eskubideak garatu eta bermatzea, diskriminazio-egoerak errotik kenduz.

Lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen bizi-etapa guztiak barne hartzea, baita familia-errealtitate desberdinak ere, eta pertsonen autodeterminazioa sustatzea bizitzaren eremu guztietaan.

Eskubideak gizarte-esparru guztietaan arautzea: familia, osasuna, hezkuntza, kirola, kultura eta aisia, justizia eta segurtasuna, komunikabideak, gizarte- eta lan-babesa eta Administrazio Publikoekiko harremanak.

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak:

- Erakunde publikoak
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak
- Biztanleria, oro har

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2023eko lehen seihibekoan

**30.- Kultu lekuaren, Zentroen eta Erlilio Aniztasunaren Legea**

a.- Izena: KULTU LEKUEN, ZENTROEN ETA ERLIJO ANIZTASUNAREN LEGEA.

b.- Helburu nagusia:

Gure gizarteko bizikidetza eta erlilio-aniztasuna babestea, elkarritzetarako eta akordiorako mekanismoak ezartzea kudeaketa positiboa egiteko, eta, kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeari eta erabiltzeari dagokionez, pertsonek eta elizek, konfesioek eta erlilio-komunitateek erlilio-askatasunerako duten oinarrizko eskubidearen erabilera bermatzea, eta hori guztia haien artean inolako diskriminaziorik gertatu gabe..

c.- Beste helburu batzuk:

- Erlilio- eta kultu-askatasuna hirigintza-antolamenduaren esparruan
- Hirigintza-lizenziak, kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko jakinarazpena, jarduera sailkatuen araubidearen aplikazioa eta beste baimen batzuk
- Euskal Erlijoien Kontseilua sortzea

d.- Inplikatutako gizarte-sektoreak:

- Erakunde publikoak
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak
- Biztanleria, oro har

e.- . - Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2021eko bigarren seihilekoa

[31.- Transexualak genero-identitateagatik ez bazterzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea aldatzea.](#)

a.- Izena: LEGEA TRANSEXUALEN BENETAKO BEHAR BERRIETARA EGOKITZEA

b.- Helburu nagusia:

Legea transexualen benetako behar berrietara egokitzea

c.- Beste helburu batzuk:

Sailen eta erakundeen arteko koordinazioa egokitzea gizarte-politiketan, osasunean, hezkuntzan, segurtasunean eta beste arlo batzuetan.

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak:

- Erakunde publikoak
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak
- Biztanleria, oro har

e.- . - Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2021eko bigarren seihiilekoa



## 10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 32.- Kirol-lanbidean Hasteari eta Jarduteari buruzko Legea

a.-Lege-proiektuaren izena: KIROL-LANBIDEAN HASTEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia

Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloan eskumen esklusiboa du. Eskumen horretaz baliatuta, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 11ko 14/1998 Legea onartu zuen, Euskadiko kirolarena. Lege horrek 62. artikulan ezartzen zuen aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, titulu ofizialak eskatuko dituztela kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak eskaintzeko, hots, irakaskuntza- zuzendaritza-, kudeaketa-, entrenamendu- eta animazio-zerbitzuak eta bestelakoak eskaintzeko.

Kirol-lanbideak gizartean gero eta gehiago direnez, araudi bat izatea ezinbestekoa da eta gaur egun oraindik ez dago. Lanbide-jarduera horiek pertsonen osasunaren eta segurtasunaren gainean zuzeneko eragina izaten dute, eta aholkularitza- eta tutoretza-lana behar bezalako prestakuntzarik gabeko pertsonek egin izan dute. Lege-proiektuaren helburua da kirol arloko lanbide batzuetan jardutearekin lotutako oinarritzko alderdiak arautzea, eta horretarako, lanbide horietan jarduteko behar diren kualifikazioak zehaztea eta lanbide bakoitzari dagokion arlo funtzional orokorra esleitzea.

Legearen ezaugarrietako bat izango da kirol-lanbideetan hastea edo jardutea ez dela esklusiboki lotuta egongo goi mailako hezkuntzako titulu akademiko bat izatearekin, kasuan kasuko lanbide-kualifikazioak egiaztatzearekin baizik. Kualifikazio horiek egiazatzeko, hainbat mailatako titulu akademikoak ez ezik, beste bide batzuk ere erabili ahal izango dira, esaterako profesionaltasun-ziurtagiriak.

Lege honek arautuko dituen lanbideek arlo hauek guztiak barne hartuko dituzte: hezkuntza, aisialdia, lehiaketa eta zuzendaritza. Hori dela eta, hauei guztiei buruz ari gara:

- Irakasleak
- Monitoreak
- Entrenatzaleak
- Kiroleko zuzendariak

c.- Helburu osagarriak:

Hezkuntza arloan, irakaslearen lanbidea araututa dago Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan. Legeak gorputz hezkuntzako irakaslearen adingabeekiko funtziogarrantzitsua bermatu nahi du eta horregatik, lehen laguntzetan gutxieneko prestakuntza bat izateko eskatuko du. Eskaera hori Lege honek arautzen dituen lanbide guztieta errepikatuko da.

Kirol monitoreek, lehiaketakoa ez den kirol-arloan jarduten dutenek, azken urte hauetan protagonismo handia hartu dute. Euskadin kirola osasun-, aisialdi- eta jolas- edo gizarteratze-



helburuekin egiten dutenen kopurua izugarri handitu da. Lanbide-jarduerarako eremu erakargarria bihurtu da. Halaber, abentura-kirolak, arrisku-kirolak eta ingurune naturalean egiten diren kirolak egiteko gero eta interes handiagoa dagoenez, profesionalen eskaintza eta eskaria ere gero eta handiagoa da. Kirol-jarduera bakoitzeko betekizun espezifiko bat ezarriko da (Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduatua, gorputz- eta kirol-ekintzen animazioko goi-mailako teknikaria, profesionaltasun-ziurtagiria...).

Lege honek onartzen du dagokion kirol -modalitateko edo -diziplinako entrenatzale lanbidea. Lanbide horrek, funtsean, lehiatu nahi duten kirolari eta taldeak zuzentzen laguntzen du, eta haien entrenamenduen plangintza egiten. Prestakuntza-mailaren (maila baxua, ertaina edo alta) eta kasuan kasuko kirolaren ezaugarrien arabera ezarriko da zein titulazio eta zein aitorpen behar diren.

Legeak kiroleko zuzendari lanbidea arautzen du, eta horren arabera profesional horrek jarduerak zuzendu, programatu, planifikatu, koordinatu, kontrolatu eta teknikoki gainbegiratzearrekin lotutako hainbat lanbide-jarduera egin ditzake. Kasu horretan, hark izaten duen jarduera-arloaren araberako titulazioa eskatuko zaio.

Lege-proiektuak lehen aldiz arautu du zerbitzuak informazio- eta komunikazio-teknologien bidez (plataforma birtualak) ematea, baldin eta zerbitzu-emaileek beren egoitza Euskadin badaukate eta, gainera, zerbitzu profesionalak herritarrek erabili ahal baditzute. Zerbitzu horien erabiltaileei ere zor zaie beren osasuna eta segurtasuna babestea eta horretarako eskatzen da kasuko kualifikazioa.

Aipatutako arloak alde batera utzita, kobratu gabe jarduera tekniko deportiboetan parte hartzen duten boluntarioei ere kualifikazio eskakizunak ezartzen dizkie Legeak. Profesionalei eskatzen zaie kualifikazio bera eskatzen zaie haiei ere, baina, dagoen gizarte-errealtitatea kontuan hartuta, erregimen malguago bat jasotzen da.

d.- Implikatutako gizarte sektoreak (proposatutako erregulazioaren araberako importanzia-ordena):

- Kirol-federazioak
- Kirol-klub eta –elkartea.
- Kirolariak.
- Kirol-zerbitzuen eta –ekipamenduen empresa kudeatzaileak
- Turismo aktiboko enpresak.
- Kirol-gaiak irakasten dituzten lanbide heziketako zentroak eta unibertsitateak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2021eko lehen seihiokoan.

### **33.- Euskadiko Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Legea**

a.-Lege-proiektuaren izena: EUSKADIKO KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Autonomia Estatutuko 10.36 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloan eskumen esklusiboa du. Eskumen horretaz baliatuta, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 11ko 14/1998 Legea onartu zuen, Euskadiko kirolarena.

2018. urtean lege horrek 20 urte bete zituen eta onartu zenetik gure gizartean kirol-jardueraren kontzeptua asko aldatu da.

Aurreko legegintzaldian sektore horretako eragileekin hausnarketa sakona egin da, batetik legearen gaur egungo alderdiei buruz, hau da, funtzionatu duten artikuluei zein garatu ez diren artikuluei buruz. Eta bestetik, hurrengo 20 urtean gure gizartean jarduera fisikoa eta kirola nolakoa izatea nahi dugun ere hausnartu da, gaur egungo errealitatearekin bat datorren lege bat egiteko asmoz, gaur egungo espektatibak eta beharrak jasoko dituen lege bat.

c.- Helburu osagarriak:

d.- Implikatutako gizarte sektoreak (proposatutako erregulazioaren araberako importanzia-ordena):

- Kirol-federazioak
- Kirol-klub eta –elkartea.
- Kirolariak.
- Kirol-zerbitzuen eta –ekipamenduen enpresa kudeatzaileak
- Turismo aktiboko enpresak.
- Kirol-gaiak irakasten dituzten lanbide heziketako zentroak eta unibertsitateak.
- Kirol-enpresak.
- Foru aldundiak.
- Udalak eta Eudel.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

- 2022ko lehen seihiokoan.

**34.- Dopinaren aurkako legea eguneratzea..**

a.- Lege-proiektuaren izena: DOPINAREN AURKAKO LEGEA EGUNERATZEA.

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Dopinaren aurkako Legea Aldatzeko Lege-proiektuaren helburua da Euskadiko dopinaren aurkako legea Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren (DAMA) Dopinaren Aurkako Mundu Kode berrira egokitzea. DAMA (WADA ingeleset), dopinari aurre egiteari dagokionean, mundu mailako erreferentzia bat da, horregatik Eusko Jaurlaritzak oinarrizkotzat jotzen du Euskadiko Legea haren irizpideetara egokituta egotea.

c.- Helburu osagarriak:

Kiroleko Dopinaren Aurkako Legearen aldaketak hainbat aldaketa jasotzen ditu arau-hauste berriei, zehapenei, laginen kontserbazioari eta lehiaketan berriz hastean bete beharreko baldintzei buruz.

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

Kirol-federazioak.

Kirol-ekitaldien antolatzaileak.

Kirolariak.

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data

2021eko bigarren seihibeko.

**35.- Agirien Kudeaketa Integralaren eta Euskadiko Dokumentu Ondareari buruzko Legea**

a.- Lege proiektuaren izena: AGIRIEN KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA EUSKADIKO DOKUMENTU ONDAREARI BURUZKO LEGEA

b.- Araudiaren helburu nagusia:

Euskadiko dokumentu kudeaketa integralaren legearen helburu nagusia da honako hauek lortzeko oinarriak ezartzea: batetik, dokumentu publikoak digitalki eta analogikoki kudeatzeko sistema koherente eta koordinatu bat antolatzea, modu horretan bermatuz hala balio iraunkorra duten dokumentuen kontserbazioa, nola haietarako irispeidea, betiere irispeide hori erregulatzen duen araudi osatuago baten esparru orokorraren arabera; bestetik, antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-sistema, gure erkidegoarentzat interesa duten dokumentazio publiko eta pribatua zaindu behar duena.

c.- Beste helburu batzuk:

Honako hauek dira Euskadiko dokumentu kudeaketa integralaren legearen helburu espezifiko osagarriak:

- Definitzea zein diren Euskal Autonomia Erkidegoaren Dokumentu Ondarea, balio iraunkorrekoa, osatzeko betekizunak
- Oinarri berrien arabera antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Sistema Nazionala, lankidetza- eta kooperazio-esparru gisa.
- Dokumentuak kudeatzeko funtzionamendu eraginkorrago eta efizienteago bat sendotzea eta sustatzea.
- Dokumentu-ondarea kontserbatu eta zabaltzeko bitartekoak jartzea.
- Sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Historikoaren funtzioak, eta horiek definitzea.
- Dokumentazio publikoan eragina duten gardentasun betebeharrauk gauzatzen laguntzea.
- Bermatzea herritarrek balia dezaketela dokumentu administratibo eta historikoetarako irispide-eskubidea.

d.- Zein gizarte sektoretan duen eragina (garrantziaren arabera zerrendatu):

Dokumentu eta artxiboen titular publikoak, dokumentu eta artxibo horiek kudeatzen dituztenak: Estatuko administrazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa, Foru administrazioa eta Udal administrazioa.

Dokumentu eta artxiboen titular pribatuak, dokumentu eta artxibo horiek zaintzen dituztenak: pertsona fisikoak eta juridikoak.

Ezagutza alor desberdinako ikerlariak.

Herritarrak, oro har: dokumentaziorako irispidea nahi dutenak, dela ezagutza iturri bezala erabiltzeko, dela zenbait eskubide edo betebehar aitzortzeko frogagiri bezala erabiltzeko.

e.- Zein datatan bidaliko da lege proiektua gobernu bilerara, onar dezan

- 2021eko lehen seihilabetekoa



## 11. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

### 36. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua

a.- Izendapen: KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUA

b.- Erregulazioaren Helburu nagusia: :

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legearen Aurreproiektua hasteko Agindu horretan honako xedea adierazten da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestea, defendatzea eta sustatzea, eta indarrean dagoen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legea ordeztuko du, gaiari buruzko erregulazio osoa eskainiz.

c.- Beste helburu osagarri batzuk:

Hasteko aginduan bertan zehazten dira helburu osagarriak:

- Administrazio publikoen arteko harremanak antolatzea kontsumoaren arloan, bai eskuadunei dagokienez, bai elkarlanari dagokionez, egungo antolamendu-egoera kontuan hartuta.
- Antzemandako kontsumo-jardunbide berriak arautzea, arreta berezia jarriz urruneko edo merkataritza-establezimendutik kanpoko kontratazioetan, eta arau-konzeptu berriak sartzea balioztatuz, hala nola pertsona kaltebera, jardunbide egokien kodeak, kontsumo arduratsua, desgaitasuna duten pertsonentzako informazio eskuragarria, edo indarkeria ekonomikoa.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak arauaren ardatz bihurtzea, prestakuntzaren eta informazioaren eremuetan arreta berezia jarriz, kontsumo jasangarria eta arduratsua lortzena bideratuta.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babes administratiboko prozedurak eguneratzea eta garatzea.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen segurtasunaren arloko babes eta kontsumoko ikuskaritza garatzea. Indarreko arauan, alderdi horiek erregelamendu bidez garatzearen baldintzaean geratu ziren, eta inoiz ez zen halakorik egin.
- Arau-hausteen katalogoa garatzea, tipoen sistema zehatz eta zehatz baten bidez, bat etorriz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen gomendioekin, segurtasun juridikoari dagokionez.
- Azken urteotan Europar Batasunean onartutako araudiaren edukiak sartzea, hala nola produktuen segurtasun orokorra, produktu akastunen gaineko erantzukizuna, zerbitzu-hornitzaleen segurtasuna eta erantzukizuna, merkataritza elektronikoa edo abusuzko klausulak.

d.- Implikatutako gizarte-sektoreak (proposatutako erregulazioaren garrantziaren araberako hurrenkeran):

- .- Kontsumitzailaileak
- .- Ekonomia eta Gizarte eragileak
- .- Kontsumitzailleen elkartea
- .- Administrazio Publikoak

e.- Lege-proiektua onartzeko, jaurlaritzaren kontseilura helarazteko gutxi gorabeherako data:

- 2021eko bigarren seihilekoa